


EUSKADI GARA. MUNDIALAK GARA!




Aberri Eguna 2025



Apirilak 20. Bilbao. Plaza Barria. 11:30

ADIERAZPENA





XIX. mendean Elisée Reclusek eta XX. mendean Miguel de Unamunok egin zuten bezala, industria-iraultzak eta foruen galerak ekarri zituzten aldaketa zurrunbilotsuen ondorioz Euskal Herriaren nortasunaren desagertzea iragartzen zuten askoren augurio guztiak gorabehera, oztopo guztiak gaindituz iritsi gara XXI. mendeko atalasetik harago.

Gaur, berriz, beste bidegurutze batean aurkitzen gara. Erabateko aldaketa baten lekuko izaten ari gara, honaino ekarri gaituzten XX. mendeko paradigmek dagoeneko ez baitute baliorik ziztu bizian eboluzionatzen ari den munduan. Gero eta txikiagoa da, gero eta konplexuagoa, arinagoa, eta gero eta polo geopolitiko aldakorragoak ditu.

Amerikako Estatu Batuetan merkataritzan eta segurtasunerako hartu dituzten

erabakien ondoriozko azken gertakariak garamatzate munduko orekak erabat aldatzea ekarriko duen egoerara. Ukaezina da mundu mailako harreman sozial eta politikoetan ziklo aldaketa baten aurrean gaudela. Ziklo honetan antzeman daiteke mundua gero eta gehiago baldintzatuko dutela nazioarte mailan eta barrura begira zein kanpora begira formula autoritarioak erabiltzen dituzten hiru polo nagusien gorakadak, Bigarren Mundu Gerraz geroztik diseinatu zen multilateralismoa apurka baztertuz.

Egungo garaian jokoan dago gure oparotasuna. Europa, bloke handietatik kanpo dagoela, interes ezberdin eta sarritan kontrajarriak dituztenek erabakitakoaren mende gera liteke. Trumpek muga-zergekin egindako erasoaren inguruko guztiak arinkiaz maneiatu

EUSKADI GARA, MUNDIALAK GARA!

izanak argi erakusten du egungo momentuaren hauskortasuna. Prest egon beharko dugu gertatzen dena gertatzen dela, dagoeneko gure ekosistema mundu mailakoa delako. Mundialak gara. Erronka horien aurrean, orain arte ezagutu izan ditugun estatu egiturak beren ahultasuna erakusten hasi dira, bai eta arazo berriei beren kabuz konponbidea emateko ezintasuna ere. Europak beharrezko du bere burua berrasmatzea, eta horretara prestatu beharko dugu; Europa, dagoeneko, barne politika delako.


Eguno denboretan ere, auzitan jartzen ari dira printzipio demokratikoak eta askatasuna. Giza eskubideenganako errespetua baztergarri jotzen omen dute orain arte, itxuraz behitzat, beren herri-ondarearen berezko elementu gisa aldarrikatzen zutenek.

Aldaketa eta ziurgabetasun une hauetan, bakoitzaren jarrerak eta botere-guneak muturretan kokatzen ari direla, gure Herriak argi eta garbi agertu behar du demokraziaren eta giza eskubideen alde.

Garai hauetan ere, komunikazioek eta teknologia berriek bizkortasun handiz eraman gaituzte globalizaziora. Gauzak horrela, askok eta askok planteatzen dute, Reclusek eta Unamunok beren garaietan egin zuten bezala, uniformizaziorantz abiatzen ari den munduan gai izango ote garen gure hizkuntzari eta gure nortasunari eusteko.

Ondorio logikoa da, beraz, etorkizunera begira gure urratsak gidatu beharko dituen bidea zein izango ote den galdetzea. Jakin dakigu gure azken portua zein den, gure helmuga. Gure Herria erabat askea eta burujabea izatea,





Europa eta munduko gainerako herriak bezala. Geure gain hartzen dugu datozen urteotan gure Herria itsaso ezezagunetan arrakastaz gidatzeko erronka.

Bada, helmuga horretara iristeko, denbora eta egoera konplikatuak zeharkatuko ditugu. Baina haraino iritsiko gara baldin eta gutako bakoitzak gure baitarako hartzen eta sentitzen badugu Franco generalaren tropa totalitarioek beren posizioak aurreratzen ari zirela eta milaka herritar erbestera ateratzen ari zirela ikusita, Agirre lehendakariak 1937ko ekainaren 30ean 'Turtziozko adierazpenean' adierazi zuen ideia: *"Lurraldea menperatua izango zen, baina Euskal Herriaren arima ez, ez da inoiz izango"*.

Gaur ospatzen dugu Euskal Herriaren arima horren parte garela; gizatalde bateko kide gara, zeinak bere buruari nazio

deitura emanaz aske izateko borondate menderaezinari eusten baitio.

Aberri hau osatu izan dute munduko mugaldeetatik ibilitako eta gizateriari beren trebetasunak eta ezagupenak eskaini zizkioten izen handiko emakume eta gizonek. "Eman ta zabal zazu". Mundialak gara. Mundu honen parte sentitu izan gara beti. Elkanorengandik hasita, Chillida eta Loiolako Inazio barne. Munduko kide izateak edo unibertsal izateak sekula ez digu beldurrik eman. Ez dugu bilatu oskol barruan gure barrura begira geratzea. Izan liteke hori ere izatea gure arrakastaren arrazoietako bat, euskal arimaren biziraupenarena.

Gaur, nazio gisa egiten ari garen bide honetan, baztertu ezin dugun errealtate objektibo bati egin behar diogu aurre, gure aberria, Euskadi, sei Herrialde

EUSKADI GARA, MUNDIALAK GARA!

Historikok osatutako multzoa delako. Estaturik gabeko beste herriek dutena baino askoz ere zailtasun handiagoa dugu Nazio gisa berriz lotzeko. Zatituta bizi gara, hiru erakunde esparrutan, Estatu bitan, eta Europa politiko batean. Zailtasunez jositako labirintoa da baina, aldi berean, aukeraz betetakoa.

Bere buruaz harro dagoen Herria gara. Aurreraegitekoduen indarrak fio den Herria. Ekintzailatza hori nortasun ezaugarri izan dugu historian zehar. Egiten jakitearen harrotasuna. Zailtasunei inoren laguntzarik gabe aurre egiten jakitearena. EAEko Ekonomia Ituna eta NFKko Hitzarmen Ekonomikoa espiritu horren adierazgarri dira. Konfiantza dugu gure gaitasunean. Uste osoa dugu gauzak ondo egin ahal ditugula.


Eta, agerikoa da gauzak hobeto egiteak ere gizarte bati laguntzen diola bere burua identifikatzen,

herri-harrotasuna sentitzen. Ez dezagun ahaztu, arrakasta izateko, erronka honi apaltasunez eta ahalegin handiz heldu behar diogula.

Herritxikibatgaragero eta mundu estuago batean, non koloreak, ñabardurak eta aniztasunak gero eta ikusezinago dauden. Izaten jarraituko badugu, gure borondateaz gain, beharrezko izango dugu gainerako nazioen artean ikusgarri bihurtzea, gero eta ezaguterrazago. Eta horrek dakar, lehenik eta behin, urrats sendoak ematea, horren egoera nahasian ere gure nortasunak eta gure hizkuntzak biziraun dezaten. Era berean eskatzen du bikaintasunean nabarmentzea, erreferente bihurtzea, munduaren aurrean giza kapitalean gailentzea lortu duen herri gisa agertzea.

Bere eskubideez jabetuta dagoen gizartea gara. Gizarte hau da,





behar bada, duela hamarkada batzuk baino indibidualistagoa. Baina, gure gizartea gaur ez da aurrekoa baino hobea, ezta txarragoa ere, bestelakoa baizik.

Gure Aberriaren nortasun ezaugarriak dira eta izan behar dute errespetua, tolerantzia eta askatasuna. Gure gizarte politika aurreratuetan sakondu behar dugu. Benetako demokrazia soziala izan beharko da euskal nortasunaren marka. Kudeaketa ekonomiko serioa, politika sozial eta solidarioekin. Gero eta gizarte integratu eta berdintzaileagoa, arrakala soziala saihestuko duena. Gure ingurura begiratuta, hala gara dagoeneko. Norabide horretan jarraitu behar dugu.

Gaur, mundua irekiago bihurtu da, biztanleriaren mugimenduak edonon eta etengabe ematen ari dira, eta herritar berriak gure herri eta hirietara etorri dira. Baina etorkin berriak gure

artean integratzeko erronkari ekin behar diogu. Beldurrak ez gaitu babestuko. Guztiz alderantziz, urrundu baino ez gaitu egingo, txikiago bihurtu. Euskadik erakutsi du gai dela erronka horri aurre egiteko. Beste lekutatik etorritako asko eta asko gure familiako parte dira dagoeneko, gure Herriko kide dira, euskal herritar dira. Beste behin egiten jakingo dugu. Gizarte kohesioa da datozen urteotan egin beharko dugun lanaren lehentasun. Mundialak gara. Era berean heldu behar diogu erronka demografikoari, kontu hori arras kezagarria baita Europako beste gizarteak baino arinago zahartzen ari den biztanleriarentzat.

Hara, gurera datozen herritar berriak dauden bezala, gure belaunaldirik gazteenak ere munduko beste tokietatik mugitzen ari dira eta beste

EUSKADI GARA, MUNDIALAK GARA!

gizarte batzuetan instalatzen ari dira, aukera berrien bila. Eta naturaltasun osoz egiten ari dira, inguru berrietan integratuz, baina gure sustraiekiko lotura galdu barik. Nazio sentitzen garelako, hala izan behar dugu gure mugetatik kanpo ere. Mugaz gaindi ere nazio gara.

Mundialak gara. Herri bidaiaria izan gara, kanpo aldean bere nortasun ezaugarriak harrotasun osoz erakusten zituen. Mundialak gara. Aberri Eguna ere badelako ospakizun eguna Argentinan, AEBn, Mexiko eta Txilen.

Mundialak gara. Euskal herritar bakoitzari dagokio dagoen tokitik, lan egiten duen arlotik, harremanak dituen esparrutik, erronka horri heltzea, nazio honetako parte sentitzea eta besteek ere berdin sentiaraztea.


Bide luzea izango da. Belaunaldi

oso bati dagokiona. Bide honetan arretaz begiratu beharko diegu Historiaren bihurgune eta ezustekoei. Berdin ekin beharko diegu jauzia emateko aukerei, inguruabarrek hala egitea ahalbidetzen digutenean, eta bidean aurkituko ditugun harea mugikorren aurrean etengabe erne egon beharrari ere.

Herrigintza egitea dagokigu gaur, aberrigintza, errealitate autonomikoa eta foru esparrua indartzea, eta muga irekiak dituen European oraindik erabat arakatu ez diren dinamikak lantzea, Euskal Herriak egoki jotzen dituen tresna politiko eta ekonomikoak sortzeko. Oraindik ernaldian dagoen ordena berria noiz sortuko zain.

Eredu dugu 36ko belaunaldia. Historiako garairik konplikatuena bizi zuten arren, hurrengo belaunaldiari beren legatua transmititzen jakin izan baitzuten.





Eurek gorpuztu dituzte gidari izan beharko genituzkeen lau bertute nagusiak: proaktibo izatea, integratzailea, erreferentea eta jokabidean eredugarria.

Mundialak izan gara eta Mundialak gara. Bizitza eta mundua ulertzeko dugun era da. Horregatik behar bada, XXI. mende nahasi honetan, Euskal Herriak ozen esan dezake hementxe dagoela eta etorkizun distiratsua duela zain, gero eta konplexuagoa eta aldi berean gero eta batuago egongo den munduaren parte izateko.

2025eko Aberri Egun honetan alaitasunez aldarrika dezagun gure iragana, ospa dezagun gure oraina eta, batez ere, gure etorkizuna.

Gora Euskadi askatuta!

EAJ-PNV-ren Euzkadi Buru Batzarra